

JUANPE PLAZA HBKO MAHAIKIDE IZANDAKO HERNANIARRA

“Eraso honi frenua jarri beharra dago”

■ Juanpe Plazak eta Ezker Abertzaleko beste 21 pertsonak gaur deklaratu dute Garzon epailearen aurrean, ETako kide izatea leporatuta ■ Hernaniarraren esanetan, auzia politikoa da eta ez juridikoa.

GARZON epaileak auto batean ETako kide izatea leporatu die Herri Batasuna, Euskal Herriarrok eta Batasunako zuzendaritzatoka zenbait pertsonari. Horietako bat Juanpe Plaza hernaniarra da, Herri Batasunako Mahai Nazionaleko kide izana eta motibo horregatik 22 hilabete kartzelan pasea.

Berriz atzeratu ezean, gaur goizeko 09:00etan Madrilen deklaratu du, beste inputatuekin batean. Madrileren abiatzerako, *Kronikak* bere erreflexioak eta iritziak jaso ditu.

“Legez onartutako erakunde politiko bateko kide gara”

Garzon autoak dio, inputatutako pertsona horiek ETako kideak direla, jakinikoa omen delako ETA, HB, EH eta Batasuna gauza bera direla. Inputazio horren aurrean inputatuek deklaratu dutena da legez onartutako erakunde politiko bateko kide direla eta beren lana publikoa eta politikoa dela. Hala ere, Juanpe Plazak garbi utzi du, eta hori



Juanpe Plaza.

azpimarratu du, auzia ez dela juridikoa, baizik eta politikoa. Beraz, eta hori argituta, esan du berak ez dutela epaitegiei zertan emanik beren aktibitate

politikoaren esplikaziorik eta ez dutela emango. Era berean, adierazi du, auzia politikoa denez, ez dutela defentsa juridikorako terrenorik. Gaurko deklarazioak zer ekarriko duen galdetuta, Plazak dio ezin litekeela jakin, baina, bada ere, txarrenerako prestatuta dijoaztela.

“Kapitulu bat gehiago”

Mahaikide izandako hernaniarraren ustez, Ezker Abertzaleko zuzendaritza politikoak ETarekin lotzea bost urteko erasoaldiaren beste kapitulu bat gehiago da eta ez bere hutsean ulertu beharreko kontua. Plazaren hitzetan, erasoaldi hori gelditu beharra dago, eta hori ez da Ezker Abertzalearen lana bakarrik, jokoan daudelako Euskal Herria bera eta gizarte osoaren oinarriko eskubideak. Erasoa gelditzen ez bada eta egoerak oraingo bidean jarraitzen badu, uste du konbibentzia eta legitimizazio arazo latza etorri litekeela.

Zentzu horretan, Ezker

Abertzaleko buruzagi izandako hernaniarraren iritzia da Eusko Alderdi Jeltzaleak ez duela ezer egin Madrilen estrategia gelditzeko: “Orain dela 5 urte prozesu bat hasi zen eta EAJk atzera egin zuen. Eta eraso guztien aurrean, justizia mailako adierazpenak egin izan ditu, Justizian konfiantza duela eta abar, baina, ez du ezer egin Madrili topea jartzeko. Nahiago izan du Ezker Abertzalea ahultzea”.

Aktibitate politikoari eutsi

Aurrera begira, Juanpe Plazak esan du Ezker Abertzaleak eutsi egingo diola aktibitate politikoari. Udal Hauteskundeetan aurkezten saiatuko dira, eta aitortu du Hernanin helburua dela “aurreko 8 urteetako dinamika hartara ez erortzea”. Bestalde, errepresio mailan Hernanin urte gogorra izan dela ere esan du.

Gauzak konpontzeko aukera ikusten du Plazak. Hala ere, dio egoera oso larria dela, eta arriskua dagoela oraindik asko gogortzeko. □

Bi orduko paro deialdia gaurko, “duintasun eta eskubideen” alde

EUSKAL Herriak erantzun ekimenak bi orduko lanuztea deitu du gaurko, goiz eta arratsalde. Atzo zenbait sektoreetan asanbleak egin ziren eta gaur ere egitekoak dira. Paroak 11:00etatik 13:00era dira goizen eta 18:00etatik 20:00etara arratsaldean.

Mobilizazioak

Mobilizazioak ere deituta daude gaurko. Egurdiko, 12:00etan eta 20:00etan izango dira Gudarien plazan. □

BERTSOLARITZA

Finala igandean

■ Tellerigain eta Kaxkoak jokatu dute finala.

HERNANIKO Taldekako Bertsolari Txapelketa iritsi da finale-ra. Tellerigain eta Kaxkoa neurtuko dira elkarren kontra, igande honetan, Larregain sagardotegian. Joan den ostiralean erabaki zen bi talde finalistak zein izango ziren. Ostiralean, Santa Barbaran neurtu ziren, Tellerigain (Urdangarin eta Agirre), Martindegi (Xapo eta Aranburu) eta Urumea-erreka (Xanta eta Legarreta). Tellerigainek irabazi zituen hiru puntuak; bigarren Urumea-erreka eta hirugarren Martindegi.

Finalera Tellerigain pasa da lehenengo postuan, 7 punturekin. Bigarren posturako enpatea izan da hiru talderen artean: Kaxkoa, Martindegi eta Inmigranteak. Azkenean, Kaxkoa pasa da finalera, hiru saioetako puntu guztiak kontatuta. Finala igandean da, 14:00etan, Larregain sagardotegian. Bazkarirako txartelak: Aralar, Kitto, Oindi, Garin eta Irrintzin, 18 euroan. □

GUARDIA ZIBIL BAT HIL ETA GOTZON ARANBURU LARRI ZAURITUA TIROTEO BATEAN

Gotzon Aranburuk larri segitzen du, baina, arriskutik kanpora

ASTEARTE eguerdi aldera, tirotea izan zen Madril ondoan, guardia zibila eta ustezko bi ETA kideren artean, kontrol batean. Tirotean Antonio Molina guardia zibila hil eta Gotzon Aranburu Hernanin bizi den azpeitiarra larri zauritu zen. Aranburuk lepoan eta sabelean zituen bi tiro. Atzo egin zioten ebakuntza eta UCIn dago, Madrileko Puerta del Hierro ospitalean. *Garako* informazioak dionez, Gotzon Aranburu arris-

kutik kanpora dago. Zauritutako guardia zibila ere ospital berean dago eta arriskuz kanpo. Aranbururekin kotxean zijoana, Jesus Mari Etxeberria Donostian atxilotu zuten. Polizia iturriek esan dutenez, ustezko bi ETA kideek kotxe bonba bat zeramakiten.

Erreakzioak

Atzo gauerako mobilizazioak deituta zeuden Hernanin, Gotzon Aranburu zauritu izana eta atxilotetak salatzeak, eta gaurtik

igandera bitartean egunero egingo dira mobilizazioak, arratsaldeko 20:00etan Gudarien plazan.

Bestalde, Hernaniko EA, EAJ, PSOE eta EBk Antonio Molina guardia zibilaren heriotza ekarri duen atentua salatu dute. Alderdi horiek, horrelako gertaeretan kontzentrazioa deitzen dute, baina, kasu honetan, kontzentrazioa egin ordez igandean Bilbon, *ETA Kanpora* lemapean egingo den manifestaziora joateko deitu dute. □



Gotzon Aranburu.

TXIMELETA
OPARIAK
Txirrita 10
943 55 23 95
HERNANI

Kardaberaz 7
943 55 34 65
Ilargi
Moda eta
komplementuak



GALARRETA
FRONTOIA



GAUR ARRATSALDEKO 16:00ETATIK AURRERA ERREMONTE JAIALDIA:

1. partidua: JUARISTI - ETXEBERRIA II / ITURRALDE - AIZPURUA II
2. partidua: EZKURRA - AIZPURU / ZEBERIO II - LIZASO
3. partidua: ELIZALDE - ETXABE / IÑIGO - A.LEKUNBERRI
4. partidua: URRETABIZKAIA anaiak / KALONGE - AUZMENDI

Allianz

ASEGURUAK
Agustin Ezponda
AGENTZIA

Tel.: 943 557 326
656 735 109

Paristik ekarritako
arropa.
Bitxiak, osagarriak,
apainagarriak, ...

ILARGIk gabon jai
zoriontzuak opa
dizkizuegu guztioi.

Egibar eta Otegi bakoitzak bereari eutsi zion

ARNALDO Otegi eta Joseba Egibarrek Biterin hitz egin zuten asteartean, HIKAK antolatuta egin diren mahai inguruan. Biteri gainezka zegoela, SA eta EAJko buruek egoera politikoaren gainean hitz egin zuten, gatazkaren analisia eta konponbide posibleak gai nagusi zirela. Otegi egin zuen aurreneko interbentzioa eta esan zuen marko politiko berri baten aurrean gaudela, 1977an bezala. Otegiaren hitzetan, orduan bezalaxe gaur ere Ezker Abertzaleak eskaintza egin du bi estatuekin herri bezala negoziatu eta errekonozimendua lortzeko. Sako bozeramailearen ustez,



Joseba Egibar eta Arnaldo Otegi, moderatzailearekin.


EAJ da planteamendu horretan sartu nahi ezik dabilena.

Joseba Egibarrek Lizarragaraziko garaiak eta orduko mogimenduak hartu zituen abiapuntutzat gaurko egoera esplikatzeko. Egibarren hitzetan, Ibarretxeren planak burujabe-

tzarako bidean jarriko gaitu. EBBko bozeramailearen esanetan, abertzaleen arteko elkarlana egotekotan bideak garbi egon behar dute, eta bestela ez da posible izango.

Publikoak parte hartze handia izan zuen. □

HITZ BITAN



Darkok eta emazteak Atxurren kafea hartzeko beta ere izan zuten.

✓ FUTBOLA

Darko Kovacevic Hernanin. Darko Kovasevic Realeko delantero ezaguna Hernanin izan zen astelehenean. Darko emaztearekin batean ibili zen herrian paseatzen, lider joan eta gainera atzekoak gero eta urrutiago ikustearen irriparrearekin. Inguruan ez zitzaion firma eske zijoakion umerik falta.

Emakumezko ligan Hernanik galdu. Joan den asteburuan 2-3 galdu zuen Hernanik Tolosaren kontra. Hernaniarrek hirugarren postuari eusten diote, baina, Zumaiako (bigarren sailkatua) 6 puntura daukate dagoeneko. Hurrengo partidua gogorra izango da, Zumaiako beraren kontra baitute.

✓ 3/4 PLATAFORMA

Kontzentrazioa, gaur, Plaza Berrian. Hirulaurden plataformak antolatuta, kontzentrazioa egingo da, gaur, Plaza Berrian, 3/4ak beteak dituzten presoen askatasuna eskatzeko. Antolatzaileek esan digutenez, gaurko deituta dagoen duintasun egunaren barruan dijioa ekitaldia. 19:00etan Plaza Berrian.

✓ IBARRETXEK DEITUTAKO MANIFESTAZIOA

Autobus txartela hartzeko azken eguna gaur. Juan Jose Ibarretxe Lehendakariak manifestazioa deitu du igandean, Bilbon, *ETA kanpora* lemarekin. Manifestaziora joateko Hernanitik autobusak jarriko dira, Hernaniko EAJk antolatuta. Autobuseko txartelak hartzeko, deitu 17:00etatik 21:00etara, telefono honetara: 943-550212. □

ESKOLA KIROLA ASTEBURUKO EMAITZAK



Langile A eta Elizatxo B taldeak, joan den larunbateko errugbi partiduan.

Errugbia	Taldeak	Saskibaloia	Taldeak	Pelota	Taldeak
Benjaminak	Elizatxo A 0 - Inmaculada 1	Aleb. nes.	Langile 26 - La Salle B 24	Infantilak	Hondarribia 10 - Hernani 18
Benjaminak	Langile A 2 - Elizatxo B 0	Aleb. nes.	Urumea 19 - Auxiliadora 33	Infantilak	Riamuntxo 18 - Hernani 10
Benjaminak	Langile B 0 - Urumea 1	Aleb. mut.	Elizatxo A 27 - Urumea A 21		
Benjaminak	Langile B 1 - Urumea 3	Aleb. mut.	Elizatxo B 35 - Langile A 30		
Benjaminak	Elizatxo B 4 - Langile C 1	Aleb. mut.	Inmaculada 26 - Langile B 16		
Benjaminak	Langile A 1 - Elizatxo A 2	Inf.mut.	Langile 60 - San Ignacio B 26		

ZINGI-ZANGA
Jatetxea

• Eguneroko menua •

Ostiral eta larunbatetan afariak ematen ditugu.
Florida 54 - Tel: 943 33 03 97

LARUNBAT honetan,
Sto. Tomas eguna BARRIKOTEA.
ITXAS-BURUKO sagardoa eta txistorrarekin.

PUTZUETA
HARATEGIA - URDAITEGIA

Kardaberaz 39
Tel: 943 55 27 87
20120 HERNANI

Xarobe
DELICATESSEN
ince 1983

Produktu Bereziak

Nagusia 17 • 20120 HERNANI
☎ 943 55 21 27
POSTA ELEKTRONIKOA: xarobe@euskalnet.net

TELEBISTAK - BIDEOAK - BIDEOKAMARAK - ETXE TRESNAK

expert

ANEXO

Gabonetan eskaintza bereziak:

*Etxeko tresna onenak,
prezio onenetan.*

ANEXOk gabon jai zoriontzuk opa dizkizue.

ZORIONAK

Izpizua kalea 21 - Tel. 943 55 03 81 - 20120 HERNANI

MUGI ZAITEZ !!!

ERABILI ZURE TXARTELA ETA BERRIAK ELKARTEKO ZOZKETETAN PARTE HARTU.

HERNANIKO BERRIAK

9430 1000 1008 401

RAQUEL GARCIA HERNANDEZ

SARIAK EZ DIRA BUKATZEN,... LORTU ZUREA!

Promozioa:
Azaroaren 15etik urtarrilaren 15era.

"BERRIAK" HERNANIKO MERKATARI ETA OSTALARI ELKARTEA

AMEGAR
etxe tresnak altzariak

amegar.net
etxe tresnak

Bisita ezazu gure web orria eta ikusi gure eskeintza.
www.amegar.net

Txirrita kalea 15 - HERNANI
Tel 943 551125 - Faxe 943 551603

Izan zaitetz OLENTZERO: Opari hauek ditugu zakuan

- 1- BANCOTEL (gau bat Hotelean): 49,95 euro
- 2- EMPERATRIZ ZITA hotela (Lekeitio):
Asteburua (2 gau-MP) 101,90 euro
- 3- VALDELAJEJO BALNEARIOA:
Asteburua (2 gau-MP): 149,80 euro
- 4- LOS HIDALGOS hotela (Santillana del Mar):
Asteburua (2 gau-AD): 48,90 euro
- 5- GOURETTE edo LUZ ARDIDENa eskiatzera:
Larunbat, igande eta jai egunetan: 37,50 euro

HERNANI BIDAIAK
Urbieta etorb. 6 - ☎: 943 330049 - 330174
e-mail: hernanib@teleline.es

Hernanitik munduko leku guztietara iristen lagunduko dizugu.